

14 GIPUZKOA

Oiartzun ibaia



Ingurumen-garrantzia

Oiartzun ibaiak kontserbazio egoera oneko ibar baso sendotua du, bereziki, haltzak (*Alnus glutinosa*) eta sahatsak (*Salix alba*). Ibai korridoreak lurreko

fauna askotarikoa du. Halaber, arrainetan aberatsa da: amuarraina (*Salmo trutta*), mazkarra (*Barbatula barbatula*) eta aingira (*Anguilla anguilla*).

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 3,1 km



Ordu 1 eta 5 min



Hurbileko herria:
Oiartzun



Ibaia:
Oiartzun



Ingurunea ez dago arriskuetatik
kanpo



348 m



206 m



243 m



110 m

OIARTZUN IBAIA



Oiartzun ibaia



Non dagoen eta nola heldu

Oiartzun ibaiaren tarteak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ipar-ekialdeko muturrean dago, Donostialdea eskualdeko Oiartzun udalerriko lurretan. Herritik Lesakarako GI-3420 errepidea hartu eta hamazazpi kilometroan eskuinetara joko dugu, pista asfaltatuan, Portuburu baserriraino.

Ondoren, ehun hirurogeita hamar metro eginda, Artxabaleta baserrira helduta lurrezko pista batean sartuko gara gaztainondoak eta haritzak jositako baso hostogalkor batean. Zortziehun bat metrora, erreka bat zeharkatzen duen eskuineko pista hartuko dugu.


Hiru bat kilometrora Penadegi indarretxera heldutakoan hasiko gara ibai ondoko ibilbidea.

Indarretxetik ibar eskuinetik doan bidexka bati jarraituko diogu ibar baso bikaina duen ibilgu bat gozatuta, haltzak dira nagusi bertan.

Hirurehun bat metroren buruan ur-jauzi txiki batera helduko gara. Itzulbiderako, bidexka txikitik joango gara indarretxeraino.

Handik aurrera ibai ondoko pistatik jaitsiko gara.

Atzean utziko dugu abereak gordetzeko erabiltzen den Penadegi baserri zahar eroria. Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia.



Deskargatu ibilbidea:



KML







GPX







Wikiloc

Ezagutu ibilbide guztiak hemen:

Oiartzun ibaia



Oiartzun ibaia



Oiartzun ibaia

